



SENDOTU

*Laguntzen eskabideak betetzeko
eskuliburua erabiltzaileentzat*

2017/2018

Edukia


Nola eskatu SENDOTU laguntza bat?	2
Zer esan nahi du asteriskoak *?	3
Zer egin behar dut nire burua identifikatzeko?	3
Ez daukat pasahitzik	3
Nola aldatu pasahitza?	4
Pasahitza galdu dut	4
Nola deskribatu hasiera batean nire proiektua?.....	5
Zer da erantzukizunpeko aitortpena?	6
Eskatutako beste laguntza batzuk.....	6
Zer esan nahi du dokumentuen egiaztatzea espresuki ukatzea?	6
Nola deskribatu nire enpresa?	7
Lehengaiak, produktuak eta zerbitzuak	7
Nola deskriba dezaket zehatz-mehatz nire proiektua?.....	8
Inbertsioa	8
Finantzaketa	8
Nola azaltzen ditut esku hartzen duten finantza-erakundeak?	9
Nola deskribatzen dut finantza-erakundeekin lotutako finantza jarrera?.....	9
Nola entregatu dokumentazioa?	10
Zer esan suposatzen du eskabidea ixteak, inprimatzeak, izenpetzeak eta entregatzeak?	11
Nola entregatu dokumentuak eta nire eskabidea?.....	11
Interneteko zer nabigatzailearekin sartuko naiz webgunean?	11

SENDOTU ERABILTZAILEARENTZAKO ESKULIBURUA

Nola eskatu SENDOTU laguntza bat?

SENDOTU laguntzak eskuratzeko aukera izateko, beharrezkoa da eskabide osoa webgunearen bitartez betetzea.

SENDOTU URRATSAK



1 Irudia. Eskabidea betetzeko urratsak

Ondorengo laguntza-lerro bi horietatik bat aukeratu behar da:

1. Lehenengo lerroa nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa-garapeneko sektoreetako kotizatu gabeko ETEei zuzenduta dago, eta arrisku-finantzaketaren hasierako momentuan ondorengo baldintzetako bat bete behar dute gutxienez:
 - a. ezein merkatutan eragiketarik egin ez izana.
 - b. beren lehenengo merkataritza-salmentaz geroztik edozein merkatutan eragiketak egiten zazpi urte baino gutxiago eramatea.
 - c. arrisku-finantzaketapeko hasierako inbertsio bat behar izatea, eta inbertsio horrek azken bost urteetako negozio-bolumenaren batez bestekoaren %50a baino gehiago izan behar du.
2. Bigarren lerroa lehenengoaren baldintzak betetzen ez dituzten nekazaritza, basogintza, arrantza, elikadura eta landa-garapeneko sektoreetako enpresei zuzenduta dago (ETE izan ala ez izan).
 - a. Lerro hau "minimis" erregelamenduaren barruan dago.

Finantzaketa operazioen gehieneko zenbatekoa, egindako aukeraketaren arabera izango da.

Zer esan nahi du asteriskoak *?

Aplikazioan zehar agertzen diren asteriskoak (*), beraien alboan dauden eremuak derrigorrezkoak direla esan nahi du.

Zer egin behar dut nire burua identifikatzeko?

Eskabide bat webgunearen bitartez kudeatzen hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da Erabiltzailearen izena eta Pasahitza sartzea.



2 Irudia. Webgunean sartzeko pantaila

Ez daukat pasahitzik

Erabiltzailerik eta pasahitzik ez baduzu, sakatu **“Erregistratu”** testuaren gainean eta bete formularioa, erabiltzailea eta pasahitza eskuratzeko.



3 Irudia. Eskatzailearen erregistroa

“Eskatzailea” atalean, eskaera kudeatuko duen pertsonaren datuak sartuko dira eta **“Honen ordezkari gisa”** dioen atalean, berriz, SENDOTU laguntza eskuratu nahi duen Erakunde Juridikoaren edo Fisikoaren gaineko informazioa.

“Onartu” botoiari sakatzean, eskatzaileak email bat jasoko du, aplikazioan sartzeko behar duen Erabiltzailearen izenarekin eta Pasahitzarekin.

Nola aldatu pasahitza?

Sarrerako pasahitza webgunearen barruan aldatu ahal izango da, “*Pasahitza aldatu*” atalaren barruan.

Pasahitza galdu dut

Sarrerako pasahitza galduz gero, webguneak pasahitza berreskuratzen utziko dizu. Erabiltzailearen izena sartu eta “**Birsortzeko**” botoiari sakatu baino ez duzu egin behar, eta jarraian eskatzaileari email helduko zaio webgunera sartzeko behar duen informazio guztiarekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIGINTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS

SENDOTU

Gogoratu pasahitza:

Erabiltzailea:

Birsortzeko

Itzuli

4 Irudia. Pasahitza berreskuratzeko pantaila

Nola deskribatu hasiera batean nire proiektua?

Proiektua behar bezala deskribatzeko, hainbat puntu daude betetzeko. Lehenengo puntua **“1. Proiektuari buruzko oinarrizko datuak”** atalean dago eta **“Proiektuaren identifikazioa”** izena du.

Proiektuaren identifikazioa

Izenburua *

Inbertsio guztiak aktiboetan *

Finantzaketa *

Ekarritako funts propioak *

Bestelako finantzaketa *

Bermatutako maileguaren zenbatekoa *

Laguntza Mota *

☐ 1 lerroa/ UE 651/2014 erregulazioan oinarritutako berma formako laguntza. Nekazar sektore, baso, arrantza, elikagai eta landa garapeneko enpresen finantziatorako. ⓘ

☐ 2 lerroa/Nekazar sektore, baso, arrantza, elikagai eta landa garapeneko enpresen finantziario berme formako minimis laguntza. ⓘ

Gorde

5 Irudia. Proiektuaren oinarrizko datuak

Izenburua eremuan izen bereizgarri bat jarriko zaio proiektuari. Hurrengo eremuetan inbertituko diren zenbatekoak, finantzatu nahi den kopurua eta bermatutako maileguaren zenbatekoa jarriko dira, eta azkenik, atal honetan, eskuratu nahi den laguntza lerroa aukeratuko da.

1 Oharra: *Fondo propioen ekarpena* aktiboetan egingo den guztirako Inbertsioaren %20aren parekoa edo handiagoa izan behar da.

2 Oharra: *Finantzaketaren zenbatekoa* hauen batura izan behar da: *Fondo propioen ekarpena + Beste finantzaketa bat + Bermatutako Maileguaren Zenbatekoa*.

Zer da erantzukizunpeko aitorpena?

Erantzukizunpeko aitorpena da bete egin beharko den dokumentua, eta **“2. Erantzukizunpeko aitorpena”** ataleko puntuari dagokio dokumentu hori.

Eskatutako beste laguntza batzuk

Aurretik laguntzarik eskatu bada (berdin da eskaerak *izapidetzen* edo *emanda* dauden ala ez), beharrezkoa izango da **“2. Erantzukizunpeko aitorpena”** ataleko b) eta c) puntuak betetzea.

- b) Proiektu honetarako beste laguntza-eskabideren bat aurkeztu edo beste laguntzaren bat jaso du, eskabidea egin den egunera arte, jarraian zehazten diren erakunde publiko nahiz pribatuetan, eta konpromisoa hartzen duela proiektu honetarako aurkeztu dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko ☒ Bai ☐ Ez

ESKAEAR EGUNA	ERAKUNDEA	ERAKUNDEA	EGOERA	ESKATUA	EMANA
Ez dago erregistrorik erakusteko					

Laguntza programa erantsi

- c) Dagokien minimis erregelamenduen barmean dauden diru-laguntzak jaso ditu zerga ekitaldi honetan eta aurreko bietan. Jasotako kopurua ☐ Bai ☐ Ez

6 Irudia. Eskatutako beste laguntza batzuei buruzko datuak

Zer esan nahi du dokumentuen egiaztatzea espresuki ukatzea?

“3. Espresuki uko egitea” atalean agertzen diren dokumentuak Elikagaien eta Kalitate Industriako zuzendaritzak automatikoki egiaztatzeko baimena eman nahi EZ bada, interesatzen direnak aukeratu beharko dira.

GARRANTZITSUA! Ez badira aukeratzen, Elikagaien eta Kalitate Industriako zuzendaritzak automatikoki egiaztatzeko baimena ematen da. Honek **“6. Atxiki dokumentuak”** atalean, dokumentu hauek atxikitzea EZ DELA DERRIGORREZKOA IZANGO esan nahi izango du; ez aurrez aurreko moduan, ez modu elektronikoan.

Nola deskribatu nire enpresa?

Enpresa deskribatzeko, “4. Enpresaren datuak” ataleko formulario beteko da.

ENPRESA

Helbide fiskala *

Enpresaren kategoria *

☐ ETE: mikro enpresa (langileak: <=10; urtean negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: <= 2 milioi €)

☐ ETE txikia (langileak: <= 50; urtean negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra: <=10 milioi €)

☐ ETE ertaina (langileak: <= 250; urtean negozio-bolumena: <= 50 milioi € edo urteko balantze orokorra: <=43 milioi €)

☐ Ez ETE

Azken urtea

Enplegatu kopurua *

Negozio bolumena (C) *

Balantze orokorra (C) *

Aurreko urtea

Enplegatu kopurua *

Negozio bolumena (C) *

Balantze orokorra (C) *

Sozietatearen Kapitalaren egungo egoera

IZENA	ZENBATEKIA	%	
Ez dago erregistratutako erakusteko			

Erantsi

Gaur egun jorratutako jardueraren eremuak

7 Irudia. Enpresari buruzko datuak

Lehengaiak, produktuak eta zerbitzuak

Inbertsioa egin aurretik edo ondoren lehengaiak erabili badira edo produktuak edo zerbitzuak lortu badira, “4. Enpresaren datuak” ataleko puntu hauek bete beharko dira.

Erabilitako lehengaiak edo/eta aurrez ikusitakoak

		BOLUMENA				
LEHENGAI	UD	0	1	2	3	
Ez dago erregistratutako erakusteko						

Erantsi

Oharra: inbertsioaren aurretik eta ondoren erabilitako lehengaiak zehaztu beharko dira: adierazi bakarriz guztiaren %15etik gorakoak direnak.

Fabrikatutako produktuak/zerbitzuak

		BOLUMENA				
FABRIKATUTAKO PRODUKTUA/SERBITZUA	UD	0	1	2	3	
Ez dago erregistratutako erakusteko						

Erantsi

Oharra: inbertsioaren aurretik eta ondoren lortutako produktuak/zerbitzuak zehaztu beharko dira: adierazi bakarriz guztiaren %15etik gorakoak direnak.

8 Irudia. Lehengai, produktu eta zerbitzuen xehakapena

Nola deskriba dezaket zehatz-mehatz nire proiektua?

“4.a. Egitasmoaren datuak” atalean dagoen puntua da proiektua deskribatzeko bete behar den beste puntu bat.

Inbertsioa egiten den establezimenduaren kokapena		
Nekazaritza-ustategi Erregistroa zk	Nekazaritza Elikagaigintzako Industrien Erregistroa (NEIE) zk.	Industria Establezimenduen Erregistro Zkia
Kalea eta Zk: *		P.K.: *
Probintzia: *	Udalerria: *	
Probintzia aukeratu	Udalerria aukeratu	
Telefona: *	E-maila: *	

9 Irudia. Inbertsioa egingo deneko establezimenduaren gaineko datuak

Inbertsioa

Egin nahi den inbertsioaren datu zehatzak banan-banan adierazteko, bete *Inbertsioaren deskripzioa* eremua, “4.a. Egitasmoaren datuak” atalean.

Inbertsioaren deskripzioa			
Eraikinak eta Obra Zibila *	Makineria eta Instalazioak *	Garraio elementuak *	Ekipo eta programa informatikoak *
Bestelakoak *	Eraikinetan eta obra zibilean eraikitako azalera (m ²)		
Guztira			
0,00 €			

10 Irudia. Inbertsioaren zenbatekoaren xehakapena

Finantzaketa

Finantzaketaren datu zehatzak banan-banan adierazteko, bete *Inbertsio-egitasmoaren finantzazioa* eremua, “4.a. Egitasmoaren datuak” atalean.

Norberaren funtsak *	Bermatutako mailegua *	Banku-kredituak *	Leasinga *
Bestelako finantzaketa *			
Guztira			
0,00 €			

11 Irudia. Proiektuaren finantzaketaren gaineko datuak

Nola azaltzen ditut esku hartzen duten finantza-erakundeak?

Finantza-eskaera aztertuko duten finantza-erakundeak jartzeko, “4.b. Eragiketaren Agiria” ataleko puntuak bete beharko dira.

Eragiketaren agiria

FINANTZA-ERAKUNDEA	BULEGOA	UDALERRIA	ESKAEAR EGUNA	HARREMANETARAKO PERTSONA:	TELEFONOA	ZENBATEKOA	EPEA	GABEALDIA	
Ez dago erregistrorik erakusteko									

Erantsi

Gorde

Ilustración 12 Eragiketaren agiriaren datuak

Oharra: Parte hartzen duten entitate guztiek sinatu beharko dute.

Nola deskribatzen dut finantza-erakundeekin lotutako finantza jarrera?

“5. Finantza-Erakundeekin lotutako finantza jarrera” puntuan, finantza-erakundeekin dauden hasierako zorrak azaltzen dira.

☐ Sin deuda anterior

FINANTZA-ENTITATEA	HASIERAKO ZORRA	HASIERAKO ZORRA	ORDAINTZEKE DAGOEN ZORRA	Amortizazioa 2017	Amortizazioa 2018	Amortizazioa 2019	Amortizazioa 2020	Amortizazioa 2021	GAINERAKOA	ABALA/BERMEA
Ez dago erregistrorik erakusteko										

Erantsi

Oharra: Finantza-erakundeekin hitzartutako eta 2017/12/31 n salido bizia duten epe luzeko mailleguak (epe motzeko epemugak barne) kontsignatuko dira. Maillegu bakoitzaren ondokoak adieraziko dira: finantza erakundearen izena, mailleguaren hasierako zenbatekoa, mailleguaren emate data, zor bizia eta berorren amortizazio epeak.

EPE MOTZERAKO PASIBOA

☐ Sin deuda anterior

FINANTZA-ENTITATEA	HASIERAKO ZORRA	AMORTIZAZIOA 2017	ABALA/BERMEA
Ez dago erregistrorik erakusteko			

Erantsi

Oharra: Lerro bakarrean entitate bakoitzeko kontsignatuko da hasierako zorra: Urtebeterako edo gutxiagorako epemuga duten eta 2017/12/31 n eskuragarri dauden kreditu lerroen guztizko zenbatekoa.

Gorde

Ilustración 13 Finantza jarreraren datuak

Nola entregatu dokumentazioa?

Eskabidea betetzeko behar den dokumentazio entregatzeko, bi modu daude: *elektronikoa* edota *aurrez aurrekoa*. Webguneko “**6. Atxiki dokumentuak**” puntutik kudeatzen dira bi moduak .

Atxiki beharreko dokumentu mota

☐ Lekukoa + Aztertu + Fitxategia gorde

Dokumentu mota	fitxategia	Data	Lekukoa	Atxikitako dokumentua
Ez dago erregistrorik erakusteko				

14 Irudia. Dokumentazioa kudeatzeko pantaila

Bide elektronikoa erabiltzea erabaki baduzu, aukeratu zer dokumentu mota igoko duzun, dokumentua ekipotik aukeratuta eta **Fitxategia Gorde** sakatuta.

Oharra: Luzapen hauek dituzten fitxategiak baino ezingo dira igo: .pdf, .jpeg, .jpg, .tif, .doc, .docx, .xls y .xlsx, eta gehienez 80MB-ko pisua.

Horrez gain, aurrez aurre entregatzea erabakitzen baduzu, eskura entregatuko duzun dokumentu mota aukeratu beharko duzu, **Lekuko** testuaren gainean sakatu eta, bukatzeko, gorde.

4 Oharra: kasu bietan, “**3. Espresuki uko egitea**” puntuan markatutako dokumentuen egiaztapen automatikoari berariaz ezetz esan ez bazaio, ez da beharrezkoa izango dokumentuak atxikitzea, ez aurrez aurreko moduan, ez modu elektronikoan.

Aurrez aurre entregatuko direla adierazi diren dokumentuak helbide hauetako edozeinetan aurkeztuko dira:

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1. Lakua

01010 Vitoria-Gasteiz

Hiritarren Arreta: Zuzenean

Bizkaia , Bilbo. Kale Nagusia, 85

Gipuzkoa, Donostia. Andia kalea, 13

Araba, Vitoria-Gasteiz. Ramiro de Maeztu kalea, 10

Aurkezteko beste leku batzuk

[Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan](#) aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

Zer esan suposatzen du eskabidea ixteak, inprimatzeak, izenpetzeak eta entregatzeak?

Eskabidea itxi ahal izateko, egoki bete behar da. Eskabidean dauden akatsak edo bete gabe dauden puntuak jakiteko, “**7. Egiaztatu eskaera osatzeko falta diren datuak**” puntua dugu lagungarri. Puntu horretan bete gabe dauden puntu guztien azalpen labur bat agertuko zaigu.

Akatsik balego, horiek zuzendu ondoren eskaera itxitzat jo ahal izango litzateke “**8. Inprimatu, Sinatu eta bidali**” ataletik. **GARRANTZITSUA!** Itxi ondoren ezingo da beste inolako aldaketarik egin. Horrenbestez, gomendatzen dugu eskaera itxi aurretik arreta handiz gainbegiratzea.

Eskaera ixten den unean, eskaera .pdf formatuan agertuko da eta inprimatu eta izenpetu egin beharko da.

Nola entregatu dokumentuak eta nire eskabidea?

Aurrez aurre entregatuko direla adierazi diren dokumentuak eta baita eskabidea itxia, eta eskabidearen orri guztiak inprimatu eta izenpetu ondoren, helbide hauetako edozeinetan entregatuko da:

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza

Donostia kalea, 1. Lakua

01010 Vitoria-Gasteiz

Hiritarren Arreta: Zuzenean

Bizkaia , Bilbo. Kale Nagusia, 85

Gipuzkoa, Donostia. Andia kalea, 13

Araba, Vitoria-Gasteiz. Ramiro de Maeztu kalea, 10

Aurkezteko beste leku batzuk

[Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan](#) aurreikusita dagoen bitartekoren bat erabiliz.

Interneteko zer nabigatzailearekin sartuko naiz webgunean?

SENDOTUren webgunea nabigatzaile bertsioa hauetarako edo **goragoko** bertsioetarako optimizatuta dago:

Internet Explorer 10 || Chrome 11 || Mozilla Firefox 3.6 || Opera 11 || Safari